

Erakustaldiak hiriaren erdialdean, hitzaldiak eta argazki-erakusketa bat egingo dira Gasteizen Emakume Errugbilarien I. Topaketaren barruan, emakumeek kirolean duten papera aldarrikatzeko

Horretaz gain, Gamarrako instalazioetan *Euskal Herriko Emakume Errugbilarien Txapelketa* jokatu da, zeinean Araba, Nafarroa, Bizkaia eta Gipuzkoako federazioek eta Lapurdiko ASB taldeak hartuko baitute parte

Aste honetan Emakume Errugbilarien I. Topaketa egingo da Gasteizen, hainbat jardueraren bidez emakumeek kirolean duten papera aldarrikatzeko. Gaurtik hasita urriaren 8ra arte garatuko da ekimena, Gasteizko Udalaren eta Udalbiltza partzuergoaren arteko lankidetzahitzarmenari esker.

Berdintasunerako zinegotzi Jaione Aguirrek eta partzuergoko lehendakari Luis Intxauspek aurkeztu dituzte gaur goizean proiektua eta horren barruko ekintzak.

Batetik, gaurtik larunbatera arte, Euskal Herriko emakume errugbilarien argazki erakusketa ikusi ahalko da Montehermoso kulturunean.

Asteazkenean, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko (IVEF) areto nagusian, “Hobekuntza Teknikorako Zentroak (HTZ): maila olinpikoko emakumezkoen errugbi proiektua” hitzaldia emango dute goi mailako kirolarien prestatzaile fisiko eta EHUko Jarduera Fisikoaren eta Kirol Zientzien Fakultateko doktore eta ikerlari Julio Callejak, HTZko Teknikari Mari Mar García eta Euskadiko Errugbi Federazioko zuzendari tekniko eta HTZ Errugbi Proiektuaren arduradun José Miguel Galdosek. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako ikasle eta irakasleei, kirol prestatzaileei, goi mailako kirolariei eta errugbilariei zuzenduta dago hitzaldia.

Ostiral goizean, Plaza Berrian errugbi zelai artifiziala jarriko da, eta Gasteizko ikastetxeetako zein errugbi eskoletako hamalau urtetik beherako umeez hastapen ikastaro batean parte hartzeko aukera izango dute. Irakasleek eta *speakerrek* azalduko dituzte errugbiaren arauak eta balioak.

Larunbatean, Euskal Herriko Emakume Errugbilarien Txapelketa jokatu da Gamarrako instalazioetan: Araba, Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa eta Lapurdiko taldeak lehenengo aldiz arituko dira elkarrekin. Txapelketa bukatutakoan, Gaztedi taldeko Estibalitz Apiñanzen ibilbidea aitortuko da.

Berdintasunerako zinegotzi Jaione Aguirrek ekimena goraiatu du, eta nabarmendu: *“kirolak desberdintasun-esparrua izaten jarraitzen du, eta horri behin betiko amaiera eman behar zaio. Erakundeek, elkarteek eta hedabideek gure emakume kirolariak lortzen ari diren*

garaipenak zabaltzen lagundu behar dugu, asmo adierazpen hutsetan geratu gabe. Gasteizko talde, jokalaria eta teknikoek ahalegin handia egiten dute astero kirol proiektuak aurrera ateratzen edo horietan parte hartzen, eta herritarrek aintzat hartu behar dituzte. Topaketa hau lagungarria izango da herritarrek errealitate hori ezagut dezaten, era ludiko eta parte-hartzailean. Gainera, topaketa honen bidez kirolaren berezko balioak ere sustatzen dira, eta horien zabalkundea oso positiboa dela uste dugu”.

Udalbiltza partzuergoko lehendakari Luis Intxauspek, berriz, Gasteizko Udalak onetsitako hitzarmena positibotzat jo du, hark bultzatu baitu ekimena, eta adierazi du: *“tokiko ekonomia eta garapenari buruzko ezagutzan inbertitzea, unibertsitateko ikasleen prestakuntzan inbertitzea, eta emakumeen kirolean inbertitzea lurralde kohesioan inbertitzea da, eta horixe da Udalbiltza izateko arrazoi handietako bat”*. Intxauspek azaldu duenez, *“hitzarmena bi erakunde publikoren arteko lankidetzaren emaitza da, gure lurraldearen kohesioak aurrera egin dezan, lan horrek giza baliabideak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak behar baititu, eta Udalbiltzak zorrotasun handienaz erabiliko dituela hitz ematen du”*. Partzuergoko lehendakariak esan du hitzarmena Udalbiltzak EHUrekin zein beste erakunde publiko batzuekin sinatutakoen jarraipena dela, eta pozik agertu da Gasteizko Udalak erakutsitako borondatearekin.

Demostraciones en el centro de la ciudad, charlas y una exposición fotográfica reivindican el papel de las mujeres en el deporte en el ‘I Encuentro de Rugby Femenino’ en Vitoria-Gasteiz

Las instalaciones de Gamarra acogerán además el *Campeonato de Rugby Femenino de Euskal Herria* en el que participarán las federaciones de Araba, Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa y el equipo femenino ASB de Lapurdi

Durante esta semana Vitoria-Gasteiz acogerá el ‘I Encuentro de Rugby Femenino’ que a través de distintas acciones reivindica el papel de las mujeres en el deporte. Desde hoy mismo hasta el próximo 8 de octubre la ciudad será escenario de esta iniciativa fruto del convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y el consorcio Udalbiltza.

La concejala de Igualdad, Jaione Aguirre, y el presidente del consorcio, Luis Intxauspe, han presentado esta mañana en rueda de prensa el proyecto que prevé las siguientes acciones en la ciudad.

Por una parte, desde hoy hasta el sábado, el centro cultural Montehermoso será sede de una exposición de fotografías de jugadoras de rugby de toda Euskal Herria.

El miércoles, el salón principal de la Facultad de Ciencias de la Actividad Física y del Deporte (IVEF) acogerá la conferencia “Centro de Perfeccionamiento Técnico (CPT): proyecto a nivel olímpico de rugby femenino” en la que intervendrán Julio Calleja, entrenador físico de deportistas profesionales y doctor e investigador de la Facultad de Ciencias de la Actividad Física y del Deporte de la UPV; Mari Mar García, técnica de CPT y Jose Miguel Galdos, director técnico de la Federación Vasca de Rugby y responsable del proyecto de rugby CPT. La charla está dirigida para alumnos y alumnas de IVEF, docentes, entrenadores deportivos, deportistas profesionales y jugadores y jugadoras de rugby.

El viernes, la Plaza Nueva se convertirá durante la mañana en un campo de rugby artificial en el que niños y niñas menores de catorce años de las escuelas de Gasteiz y escuelas de rugby tendrán la oportunidad de participar en un curso de iniciación. Los profesores y speakers expondrán las normas y los valores del rugby.

El sábado, las instalaciones de Gamarra acogerán el Campeonato de Rugby Femenino en el que los equipos de rugby femenino de Araba, Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa y Lapurdi participarán, por primera vez juntos. Al término del campeonato, se reconocerá la trayectoria de la jugadora del Gaztedi Estibalitz Apiñaniz.

La concejala de Igualdad, Jaione Aguirre, ha valorado la iniciativa ya que según ha destacado “*el deporte sigue siendo un ámbito de desigualdad a la que poner punto y final. Instituciones,*

organismos y medios de comunicación debemos favorecer la difusión que merecen los logros que están logrando nuestras deportistas y no quedarnos en meras declaraciones de intenciones. En Vitoria-Gasteiz hay clubes, jugadoras y técnicos que cada semana consiguen, con mucho esfuerzo, sacar adelante o participar en proyectos deportivos que deben ser reconocidos por la ciudadanía. Con la celebración de este encuentro se ayuda a que la ciudadanía abra los ojos a una realidad y lo haga de forma lúdica y participativa. Además, con este encuentro se fomentan otros valores, los propios del deporte, cuya difusión consideramos muy positiva “.

Por su parte, el presidente del Consorcio de Udalbiltza, Luis Intxauspe, ha valorado positivamente el convenio aprobado por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz del que parte esta iniciativa y ha declarado que *“invertir en conocimiento sobre economía y desarrollo local, invertir en la formación del alumnado de la universidad e invertir en deporte femenino, es invertir en cohesión territorial, uno de los grandes motivos de la existencia de Udalbiltza”*. Según Intxauspe, *“este convenio es fruto de la colaboración entre dos instituciones públicas para avanzar en la cohesión de nuestro territorio, labor que requiere de recursos humanos, técnicos y económicos, y que Udalbiltza se compromete a utilizarlos con el máximo rigor”*. El presidente del Consorcio de Udalbiltza ha asegurado que este convenio es la continuación de otros convenios firmados por Udalbiltza tanto con la EHU-UPV como con otras instituciones públicas, y ha mostrado su satisfacción por la voluntad mostrada por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.